



## IRAGARKIA

2026ko ekitaldirako aurrekontu orokorra egitaratzeko udal araudiaren IV. eranskinen honako hau azaltzen da:

**BARRUNDIAKO UDALERRIAN ERROLDATURIK DAUDEN ELKARTEEN ETA/EDO PERTSONA FISIKOEN EDO UDALERRIAN BERTAN JARDUERAK ETA ZERBITZUAK EMATEN DITUZTENEN KULTURA, KIROL ETA GIZARTE EKIMENAK ETA NATURA SUSTATZEKOAK FINANTZATZEKO OINARRIAK**

### 2026KO DEIALDIAREN OINARRIAK

#### 1. OINARRIA.- DEIALDIAREN XEDEA.

Oinarriotan araututako dirulaguntzen xedea da 2026. urtean udalerrian kultura, kirol eta gizarte sustapeneko programak eta jarduerak eta natura sustatzekoak egiten laguntzea, udalarenak osatzeari begira.

Jarduerak finantzatzeko laguntzak dirulaguntzak izango dira, eta honakoak izango dituzte arau: azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzena; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua; Plan Estrategikoa, eta Dirulaguntzak eta laguntzak arautzen dituen Ordenantza.

#### 2. OINARRIA.- ONURADUNAK.

- Barrundiako udalerrian dauden irabazteko asmorik gabeko elkarteak, behar bezala erregistratuak, ekainaren 22ko 7/2007 Legean, Euskadiko elkarteen, oinarrituz.
- Irabazteko xederik gabeko kirol elkarte eta klubak, baldin eta, egoitza Barrundiako udalerrian eduki ez arren, bertan badihardute eta haietako bazkide edo parte hartzaileen bat herrikoa bada. Halakoetan, ekainaren 22ko 7/2007 Legean, Euskadiko elkarteen, xedatutakoaren arabera egiaztatuko da izen ematea.
- Udalerrian erroldaturiko pertsona fisikoak, baldin eta zuzenez dagokien dirulaguntza emateko jarduerak egiten ari badira.
- Barrundian erroldatutako pertsona fisikoen taldeak, baldin eta, nortasun juridikoa izan ez arren, diruz lagun daitezkeen proiektu edo jarduerak gauzatzen badituzte.

#### 3. OINARRIA.- DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN PROGRAMAK.

Dirulaguntza jaso dezakete eskaera egiten den urtean Barrundiako udalerrian egin diren irabazteko xederik gabeko jarduera programatuek. Halaber, diruz lagundu daitezke zuzenean udalerrian bertan egin ez arren, 2. oinarrian adierazitako onuradunek garatzen duten programaren zati diren jarduerak, hauei buruzkoak:

1. Gizarte eta kultura sustapena.
  - Kultura jardueretarako laguntzak (ekitaldi tradizionalak, aisialdi tailerrak, hitzaldiak eta ziklo monografikoak, baita parte hartzeko beste edozein kultura jarduera edo ekintza ere).
  - Kultura bisitaldietarako laguntzak.
2. Kirol sustapena.



- Kirol jardueretarako laguntzak (kirol lehiaketa eta ibilaldiak, txapelketak, baita aisialdiko kirolarekin lotutako edozein jarduera ere).

### 3. Natura ingurunea sustatzea.

- Natura ingurunearekin lotutako jardueretarako laguntzak.

### Ondokoak ez dira diruz lagunduko:

- Sexua dela eta, zuzenean edo zeharka diskriminatzaileak izan daitezkeen jarduerak.
- Janariak, elikagaiek, dietek eta erregai-gastuek eragindako gastuak.
  - Herriko jaien esparruan egiten diren jarduerak.
  - Barrundiako Udalak emandako hitzarmen eta banakako laguntzen bidez diruz laguntzen diren jarduera espezifikoak.
- Jarduera bera garatzeko ezinbestekoak ez diren gastuak.

## **4. OINARRIA.- ESKAERAK ETA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK.**

Erakunde eskatzaileek agiri hauek aurkeztu behar dituzte:

- Programarako edo jarduerarako banakako eskaera orria, 1. eranskinarekin batera, elkarteko lehendakariak sinatua, eredu ofizialaren arabera. Eskaera orrien eredia udal bulegoetan eskura daiteke edota udaleko web orritik deskargatu: [www.barrundia.eus](http://www.barrundia.eus).
- Egoitza udalerrian ez daukaten elkarte edo klubak badira, erregistroan izena emanda egotea egiaztatuko da eta Barrundiako udalerrian bizi diren bazkideen frogagiriak aurkeztu beharko dira. Halaber, parte hartzaileen datuak jakinaraziko dira. Barrundiakoak direla egiaztatzeko.
- Jardueraren edo programaren proiektua, honakoak izango dituena:
  - Zein helburu lortu nahi diren.
  - Nolakoak izango diren egingo diren jarduerak.
  - Jarduera horiek non eta noiz egingo diren.
  - Zenbat pertsona izango diren jardueraren onuradunak.
  - Jarduera zein hizkuntzatan egingo den.
  - Zein izango den dirulaguntzaren bidez garatzekoak diren jardueren diru-sarreraren eta gastuen aurrekontu xehatua.
- Erakundearekin betebeharrak fiskalak egunean edukitzea eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiarekin (eranskina).

Zerrendaturiko baldintzak betetzen ez dituen eskaeraren bat egonez gero, Barrundiako Udalak interesdunei hamar egun emango dizkie hutsak zuzendu edo behar diren agiriak aurkez ditzaten. Epealdi horretan gorabeherak zuzentzen ez badira, interesdunak dirulaguntzari uko egin diola ulertuko da eta eskaera artxibatuko da.

## **5. OINARRIA.- AGIRIAK AURKEZTEA.**

Eskaerak Barrundiako Udalaren erregistroan aurkeztuko dira.

Epez kanpo aurkeztutako eskariak ez dira aintzakotzat hartzen.

Eskaerak eta laugarren oinarrian zehazten diren agiriak 2026ko maiatzaren 31rako aurkeztu behar dira.

## **6. OINARRIA.- DIRULAGUNTZAK EMATEKO IRIZPIDEAK.**

1.- Dirulaguntzak emateko eta haien zenbatekoak zehazteko irizpide orokor hauek hartuko dira kontuan:

- Dirulaguntzak emateko orduan lehentasuna izango dute udalerrian bertan egiten direnak.



- b) Ekimenak nolako ekarpena egiten diren kulturara eta natura errehabilitatzeari eta zabaltzeari eta euskara normaltzeari.
- c) Berdintasuna eta kulturarteko bizikidetzara era zeharrean barnesartzen dituztenek.
- d) Genero ikuspuntua era positiboan garatzen eta bultzatzen dituztenek.
- e) Zein den aplikaziorako lurralde eremua: ekimenean inplikaturako edo ekimenaren onuradun diren herri kopurua eta pertsona onuradun kopurua.

2.- Gizarte eta kultura elkarteei eman beharreko laguntzak zehazteko erabiliko diren berariazko irizpideak ondoko hauek dira:

- a) Udalerritik kanpo egiten diren jarduerak, hala nola txangoak, irteerak... Haietako bakoitzerako gehienez ere 200 euro emango dira. Dirulaguntza hori jasotzeko justifikatu eta egiaztatu egin beharko da gastu bat, gutxienez 250 eurokoa.
- b) Aurkeztutako eskaerak kontuan hartuta, jardueraren defizitaren ehuneko 80 diruz lagunduko da gehienez, baldin eta jarduera hori udalerrian egiten bada. Jarduera euskara hutsean egiten bada, dirulaguntza defizitaren ehuneko 95 izango da. Ehuneko hori murriztu egingo da baldin eta proposaturako jarduerak bat badatoz udalak berak zuzenean antolatutako programarekin. Jarduerak garatzeko behar diren materialen edo produktuen gastuak finantzatzeko denean, emango den dirulaguntza kreditu erabilgarriaren eta aurkeztutako eskabideen araberakoa izango da.
- c) Elkarte bakoitzerako gehieneko dirulaguntza 1.000 euro izango da, programa edo jarduera kopurua edozein delarik ere.
- d) Diruz lagundutako jarduera justifikatzean alderik ikusten bada jardueraren benetako kostuaren eta aurkeztutako eskaeran adierazitakoaren artean, honelaxe jokatuko da:
  - 1. Jardueraren kostua eskaeran aurreikusitakoa baino txikiagoa bada, behin murrizketa horren zioak aztertuta, organo eskudunak erabaki ahal izango du dirulaguntzari kentzea jardueraren kostuaren murrizketaren ehunekoak.
  - 2. Jardueraren kostuak gainditu egiten badu aurkeztutako eskaeran aurreikusitakoa, gehikuntza diruz lagunduko da baldin eta dirulaguntza eman den urtearen abenduaren 04a baino lehen justifikatzen bada jarduera, eta aurrekontuko kasuan kasuko partidaren nahikoa kreditu badago.

3.- Kirol jardueretarako laguntzen zenbatekoa ezartzeko ondoko irizpide hauek erabiliko dira:

- Aurkeztutako eskaerak kontuan hartuta, jardueraren defizitaren ehuneko 80 diruz lagunduko da gehienez, baldin eta jarduera hori udalerrian egiten bada. Jarduera euskara hutsean egiten bada, dirulaguntza defizitaren ehuneko 95 izango da.
- Eskaera bakoitzerako gehieneko dirulaguntza 600 euro izango da, programa edo jarduera kopurua edozein delarik ere.

4.- Ondoko hauek dira nortasun juridikorik ez duten eta kirol jarduerari ez dagozkien pertsona fisikoei edo pertsona fisikoen elkarteei aplikatuko zaizkien berariazko irizpideak:

- Aurreko paragrafoetan adierazitako irizpideak aplikatuko dira kirol eta kultura jardueretan.
- Udalerritik kanpo egiten diren jarduerak, hala nola txangoak, irteerak... Haietako bakoitzerako gehienez ere 200 euro emango dira. Dirulaguntza hori jasotzeko justifikatu eta egiaztatu egin beharko da gastu bat, gutxienez 250 eurokoa.



- Laguntza bakarra emango da, baldin eta pertsona fisiko batzuek banan-banan formalizatzen badute jarduera programa berarako dirulaguntza eskaera bat baino gehiago.
- Pertsona fisikoei edo pertsona fisikoen elkarteei gehienez ere 600 euro emango zaizkie.

### **7. OINARRIA.- AURREKONTUKO ZUZKIDURA.**

Bi aurrekontu partida egongo dira. Bata (334.481.005 partida – 3.800 euro) kultura jarduerari laguntzeko, eta bestea (341.481.006 partida – 1.200 euro) kirol elkarteei laguntzeko.

### **8. OINARRIA.- DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA.**

Dirulaguntzak borondatezkoak izango dira eta indarreko urtean baino ez dira aplikatuko. Ezin izango da arazoitzat eman aurrekoan jaso izana eta ezin izango da dirulaguntza handitzeko edo berrikusteko eskatu.

Barrundiako Udalaren ekarpena izango da 6. oinarrian jasoriko irizpideak aplikatuzetik ateratzen dena.

### **9. OINARRIA. DIRULAGUNTZEN BATERAGARRITASUNA.**

Udalaren laguntzak bateragarriak dira eskatzaileek eskuratu ditzaketene beste batzuekin. Dena dela, udalaren dirulaguntzaren zenbatekoak, bakarrik edo beste erakunde batzuek emandako laguntza batzuekin batera, ezin izango du gainditu talde onuradunak egin nahi duen jardueraren zenbatekoa.

Onartu den dirulaguntza berriro aztertu ahal izango da, gastuaren finantzabidea zein den eta laguntza edo beste diru sarrera batzuen ekarpen osagarriak zenbatekoak diren jakin ondoren. Halakoetan, dirulaguntzaren behin betiko zenbatekoa hauxe izango da: diru sarreraren eta gastuen arteko azken likidazioa egin eta hortik ateratzen den emaitza defizitariora.

### **10. OINARRIA.- ESKAERAK AZTERTU ETA EBAZTEA.**

Dirulaguntzen azterketa eta, hala badagokio, emakida edo uko egitea, eskaerak aurkezteko epea amaitu eta gero egingo dira.

Udalak, egoki irizten dion kasuetan, aurkeztutako agiriei buruzko datuak eta azalpenak eskatzeko ahalmena izango du. Espedientea atzeratu, eta are artxibatu egin daiteke, baldin eta datu nahiz azalpen horiek ez badira bideratzen Herri administrazioen administrazio prozedura erkidearen Legean ezarritako epeetan.

Eskaera bakoitzaren inguruko izapide guztiak egin ondoren, gizarte eta kultura jardueretarako teknikariak haien txostena egingo du, eta Alkate-Udalburuari igorriko dio ebazpena eman dezan. Alkate-Udalburuak dirulaguntza eman ala ukatu ebatziko du dagokion erabakiaren bidez, eta horren berri emango die eskatzaileei idatzizko jakinarazpena eginda.

### **11. OINARRIA.- BETEBEHARRAK.**

- a) Dirulaguntza jasotzen duten jarduerak dirulaguntza ematen den urteko abenduaren 11rako eginda egon behar dute.
- b) Onuradunek, gastuak frogatzeaz gainera, jardueraren memoria xehatua aurkeztu behar dute, gastuen eta diru sarreraren balantze ekonomiko eta guzti.
- c) Ezin izango da aldatu emandako dirulaguntzaren xedea, Udalak baimena eman ezean.
- d) Udalarari jakinarazi behar zaizkio xede berbererako eman eta ordaindu diren laguntzak, beharrezko laguntza itzuli ahal izateko.



- e) Jardueraren publizitatean hauxe agertu behar da idatzita: "Barrundiako Udalaren laguntzarekin - Con la colaboración del Ayuntamiento de Barrundia".

## **12. OINARRIA.- HIZKUNTZA IRIZPIDEAK.**

Barrundiako Udalaren "Euskararen erabilera plana" plan estrategikoa da, zeinen helburua den hizkuntzaren normalizazioan aurrerapausoak ematea. Garatu beharreko helburuak eta estrategiak zehazteko oinarritzko tresna da, kontuan hartzen dituen udalerriko lehentasunak eta beharrak. Euskararen aldeko ekintzak egokituz eta proposatuz, haren erabilera normalizatu nahi da.

Planean jasotako helburuak kontuan hartuta, hizkuntza irizpide hauek bete behar dira:

1. Jarduerak zabaltzeko materialak (kartelak, eskuorriak, eskutitzak...) euskaraz edo elebidun idatzita egotea.
2. Gaztelaniaz gain, euskara erabiltzea ekitaldietan: aurkezpenetan, megafonian, ekintzetan, jardueretan...
3. Jaien egitarauan, euskarazko jardueren antolamendua sustatzea.
4. 18 urtetik beherakoei zuzendutako jardueretako begiraleak euskaldunak izango dira eta beti euskaraz arituko dira.

## **13. BERDINTASUN IRIZPIDEAK.**

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Barrundiako Udalean indarrean dagoen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planean ezarritako helburuak betetzen direla ziurtatzeko, genero-ikuspegia aurkezten diren programak eta jarduerak gauzatzetik eratorritako dokumentu guztietan agertu beharko da. Diruz lagundutako programa, proiektu edo jardueretan genero-ikuspegia txertatzea sustatu beharko da; horretarako, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko honako irizpide hauek betetzea proposatzen da.

- Diruz lagundutako programak, proiektuak edo jarduerak sustatzeko elementu gisa egiten diren dokumentazioko edukien, materialen, kartelen eta testuen hizkuntza eta irudiak modu sexistan ez erabiltzea, emakumeak eta LGTBI kolektiboa diskriminatzen dituen edozein irudi edo estereotipo sexista saihestuz, eta berdintasunezko balioak, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzukidetasuna eta rol eta genero-identitate aniztasuna bultzatuz.
- Biztanleria parte-hartzailearen edo hartzailearen datuak sexuaren arabera bereizita aurkeztea (emakumeak eta gizonak) edo, erakundeek datuak genero-identitatearen arabera jaso badituzte (emakumeak, gizonak eta beste identitate batzuk), bai aurkeztutako proiektuan bai justifikazioan.
- Haienztat edozein emaitza negatibo saihestea eta, hala badagokio, inpaktu hori neutralizatzeko neurri zuzentzaileak aurreikustea.
- Emakumeen eta gizonen parte-hartze orekatua sustatzea proiektuan eta garatzen dituzten jardueren guztietan.
- Diru-laguntza jasotzen duen organoak berdintasunean oinarritutako prestakuntza sustatu behar die diru-laguntzan parte hartzen duten langileei, Udalak edo Kuadrillak urtean zehar antolatzen dituen edo beste erakunde batzuek modu ofizialean eskaintzen dituzten ikastaro eta/edo tailerren bidez.
- Elkarleen jardueren barruan genero-indarkeria eta mikromatxismoak prebenitzea.

## **14. OINARRIA.- JUSTIFIKATU BEHARRA ETA KOBRATZEA.**



Diruz lagundutako programa edo jarduera bukatu ondoren, 2026ko abenduaren 11 baino lehen justifikatu beharko da. Epea amaitutakoan agiri horiek aurkeztu ez badira, ordainketa kredituak baliogabetu egingo dira.

Jarduera justifikatzeko, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Programarako edo jarduerarako banakako eskaera-frogagiria, elkarteko lehendakariak sinatua, eredu ofizialaren arabera. Eskaera orrien erdua udal bulegoetan eskura daiteke edota udaleko web orritik: [www.barrundia.eus](http://www.barrundia.eus) deskargatuz.  
Jardueren memoria honako hauek jaso behar dira: egindako ekintzak, betetako helburuak edo lortutako emaitzak, erabilitako baliabideak, noiz gauzatu diren eta zein hizkuntza erabili den.  
Jardueraren genero eragina ere azalduko da memorian. Datuak, bildu badira, sexuaren arabera bereizita adieraziko dira.
- Gastuen frogagiriak, fakturen bidez, eta haien ordainketaren frogagiriak.
- Elkartearen lehendakariaren ziurtagiria, irabazteko xederik ez dagoela eta diru sarrera guztiak jarduera horretarako izango direla adierazten duena.
- Elkartearen lehendakariaren ziurtagiria, bestelako dirulaguntzarik ez dutela jaso adierazten duena, baldin eta ez badute jaso. Beste dirulaguntzaren bat jasoz gero, dirulaguntza mota eta zenbatekoa zehaztu behar dira.
- Egoki irizten den agiri oro.

Laguntzen ordainketa alkatearen erabaki baten bidez ebatziko da 2026ko abenduaren 30a baino lehenago.

Diruz lagundutako jarduera egin eta justifikatu ondoren ordainduko da dirulaguntza.

Frogagiriak ez badatoz bat deialdiaren irizpideekin, irizpideen arabera justifikatutako kopurua besterik ez da ordainduko; gainera, gerta liteke dirulaguntza baliogabetzea ere.

#### **15. OINARRIA.- GARAPENA.**

Dirulaguntza eskatzeak esan nahi du oinarri hauek eta Dirulaguntzak eta laguntzak arautzen dituen Ordenantza ezagutu eta onartzen direla.

Barrundiako Udalak datuak benetakoak diren eska eta egiazta dezake, bai eta oinarri hauetan arautzen dena betetzen den ere. Horretarako, elkarte onuradunek hitzemanden dute egiten dituzten programei edota jardueri buruz eskatzen zaizkien datuak eta agiriak emango dituztela, baita Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eskatzen dituenak ere.

#### **16. OINARRIA.- ITZULKETA.**

Oinarri hauetan jasotako betebeharrak eta zehaztapenak ez betetzeak dirulaguntza ezeztatzea ekarri ahalko du.

#### **17. OINARRIA.- INTERPRETAZIOA.**

Oinarri hauek interpretatzean zalantzarik sortzen bada, udaleko teknikariek txostena luzatuko dute eta Alkate-Udalburu berberak ebatzi.

#### **18. OINARRIA.- BERME NEURRIAK.**

Onuradunek jarduera programa aldatu edo aldarazteko eskatu ahal izango dute, baldin eta eskaera hau jarduera egiteko epea amaitu baino lehen egiten bada.

Udalak ondo iriztitako administrazio kontrolak eta ikuskapenak egin ahal izango ditu, zertarako eta aurkeztutako dokumentazioan jasotako datuak benetakoak diren eta laguntza jasotzeko betekizunak gauzatzen diren ala ez egiaztatzeko.

#### **19. OINARRIA.- AZKEN KLAUSULA.**



BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitelakeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: <https://udalenegoitza.araba.eus/barrundia/validacionDoc/?entidad=BARRUNDIA>  
Z0144708b0370d064b307ea21c030e23D

**BARRUNDIAKO Udala**  
(ARABA)



**Ayuntamiento de BARRUNDIA**  
(ÁLAVA)

Oinarri hauetan xedatu ez denerako, ondokoak hartuko dira kontuan: 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorra eta bera garatzen duen Araudia, 887/2006 Errege Dekretuz garatua, Barrundiako Udaleko Dirulaguntzak eta Laguntzak arautzen dituen Ordenantza eta aplikatzekoak diren gainerako arauak.

Denen ezagutzarako argitaratzen da.

ALKATEA,

Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por:	Kargua / Cargo:	Data / Fecha:
IGOR MEDINA ISASA (BARRUNDIAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BARRUNDIA)	Alkatea / Alcalde	13/03/2026 14:40